

Maspilaren zura

ARBUTUS UNEDO, gurbitz handirik ez duzu berehalakoan aurkituko, eta gurbitziren bat ezagutzen duen bat baino errazago topatuko duzu hego haizea noiz sortu zen dakiena. Egurra sutarako, zura tornurako, hostajea bazkatarako, fruitua likoretarako... Ia desagerpenerainoko bultzadizoa emana diogu.

ANDREW DUNN-CC BY SA



Maspila, *Sorbus terminalis*.

Gurbitzarena bezalako adibide mordoa du gure kulturak. Oinarriko premiak betetzetik abiatu genuen basoaren ustiakuntza. Gero, orde, berdindu ezinezko diru-gose galantak ase asmoz ikaragarriko triskantzak bai antolatul! Landare asko eraman dugu desagerpeneraren amildegiaren ertzero. Gure etxean maspila eta hiztegi-tan basagurbea deitzen dena kasu, *Sorbus torminalis*. Gutxi ezagutzen du, ez da harritzekoa! Gurbitzaren aldean urria da. Izan ere, zenbat lanabes egin ote dira bere zurarekin?

Garai batean kaobaren (*Khaya* sp. eta *Swietenia* sp.) pareko zurtzat jotzen zen, onetan onenetakoa. Baita gaur egun ere; aurkitzen nahikoa lan, eta garesti! Zur trinkoa da, 660-990 kilo metro kuboko, lantzeko gozoa, gogorra, pitzadurarik eta tipularik gabea, iruditzen zaila, galera gutxi duena, gorritza dotorea. Makina bat gauza egin izan da maspilezko: eskulturak eta eskopeta kaxa politak, neurtze tresna iraunko-

rrak... Musikari ere aparteko zera bereziren bat erantsiko dio, tresna askoren zenbait atalek zur hori behar baitzuten, piano eta antzekoen giltzak edo teklak, adibidez. Ezagunak dira haize instrumentuenak, entzutetsuenak elizetako organoen tutuak eta bestelako zatiak. Marruskadura eraman behar duten piezak egiteko ere aukerakoa: makinetak atalak, engranjeetako hortzak... Era berean, mahai tresna, burruntzali eta antzekoak egiteko ezpelaren (*Buxus sempervirens*) parekoa. Tankera guztietako lanabesen kirtanak egiteko aparta. Maspil zurezko oholez osatutako barrikak estimu handia zuen, bai uxualetarako bai ardotarako. Maspilaren aleak, mizpiraren (*Mespilus germanica*) eran ondo usteldutakoan gozatzen dira eta ezker aihena (*Humulus lupulus*) bezala, garagardoa mikazteko, baita belar eta patsen uxualak osatzeko baliatzen zen. Sagardoa hobetzeko ere erabili izan da. Maspilardoa egin izan omen da. Zuretarako maspila bota eta bota egin dugu, baina ardotarako behinik behin eutsi beharko genioke! ■



Irakurleak galdezka

Aupa Jakoba! Lagun artean eztabaida piztu zaigu eta zure laguntza premian gertatu gara. Hara, gaztelaniazko *menta* eta *hierbabuena* gauza bera al dira? Non dago alde? Eta euskaraz nola esango ditugu? Eskerrik asko.

Inazio Usarralde (Lazkao)

Ufff! Osin artean sartu haiz! Zikulu-saltsa ikaragarria dago gai horrekin. Denak mendak dira, asko dago, penintsulan hamabi espezieetik gora... *Hierbabuena* teari eta nahastean zaionari deitzen zaio, baina horretarako ere bat baino gehiago erabiltzen da. Gehienetan *Mentha spicata* espeziea da, baina bere hibrido bat ere (*Mentha spicata* x *Mentha suaveolens*) izan daiteke, beste batzuen artean.

Esaten duzuna esaten duzula beti arrazoi, apustu



ARTHUR/WWW.TRIBE.NET

Menda, *Mentha spicata*.

polita beraz! *Hierbabuena* guztiak mendak dira, baina menda guztiak ez dira *hierbabuena*. Euskaraz izen mordoa dute: batana, txortaloa, menda fina, menda zuria, menda beltza... ■